

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, LEHIAREN DEFENTSARAKO EUSKAL AUZITEGIARI BURUZKOA, 2005-2007.**

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak (HKEE), Eusko Legebiltzarraren Ekonomia eta Ogasun Batzordeak hala eskatuta, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiaren (LDEA) gaineko fiskalizazio txostena egiteko eskatu zion, 2005-2007ko aldian ekonomia-finantza jarduera, legezketasuna eta egotzitako helburuak bete izana barne hartuko zituena. Txostena HKEEren Osokora bertaratutako kideek aho batez onetsi dute.

Honela, bada, LDEA apirilaren 12ko 81/2005 Dekretu bidez sortu zen (36/2008 Dekretu bidez aldarazitakoa), erabateko autonomia hierarkikoa eta funtzionala aitortzen dio eta EAEn esparruan lehiaren defentsarako egitekoak esleitzen dizkio. Organikoki, Ogasun eta Herri Administrazio Saileko Ekonomia, Aurrekontu eta Ekonomia Kontrolerako Sailburuordetzara atxikia dago, Sail honen egitura hierarkikoaren atal izan gabe.

LDEAk egiteko erabakitzaileak garatzen ditu debekatutako jokamolde kasuetan; baita, EAEn esparruan lehiaren babeserako politikaren gaineko kontsulta, zaintza eta sustapen egitekoak ere.

2006ko ekitaldian zehar Estrategia eta Kudeaketa Plana mamitu zuen, 2006-2007 aldirako balore eta helburu estrategikoak besarkatzen dituen erreferentziazko esparrua mugatzen duena.

Legezketasunari dagokionez, HKEEk uste du LDEA Dekretu bitartez sortzea zegozkion legezko izapideak jarraiki gauzatu bazen ere, Lege bitartez sortu izan balitz, Legebiltzarrean horren gaineko eztabaida egiteko bide emango zukeela.

Berebat, LDEAko administrazio lanpostua hiru hilabetez zerbitzu eginkizun bitartez bete zen, horren gaineko deialdirik egin gabe, 2006ko maiatzaren 30eko Aginduaren arabera.

Bestalde, aztergai izan dugun aldiaren zehar publikitate eta lehia printzipioak bete gabe hainbat gastu kontratatu ziren; egoera hori, ordea, txosten hau idatzi dugun datan, zuzendua da jada.

Azkenik esan behar dugu, ez dela Lehiaren Defentsarako Erregistroa sortu; bertan ofizios erregistratuko dira LDEAk baimendutako akordio, erabaki, gomendio eta aribideak eta guztiz edo partzialki debekatutako izendatu dituen haiek.

Aztertutako aldiaren zehar LDEAri ezargarri zaizkion gastuei dagokienez, Epaitegiak azpimarratu du ez zaizkiola egotzi ez inbertsio errealei dagozkienak, ez eta izaera orokorreko beste funtzionamendu gastu batzuk ere, Herri Administrazio eta Ogasun Saileko Zerbitzu Zuzendaritzak egindakoak, horren bulegoetan baitu egoitza, eta honenbestez, ez direla fiskalizazio-gai izan. Sarrerei dagokienez, aztertutako aldiaren ez da inongo kopururik aitortu, zuhurtziaz errekurritua eta balio gabetua baitago 2007an izapidetutako zigor espediente batean ezarritako zehapena.

HKEEren txostenak berariaz azpimarratu du Estrategia eta Kudeaketa Planaren baloreetan jasotako LDEA burujabea dela administrazio autonomikoarekiko bere jardueraren eta eskumenaren garapen orotan; nolana ere, ez duela nortasun juridiko propioz adierazi du eta honenbestez, ez duela askatasunik giza eta gauzazko baliabideei eta ekonomia-aurrekontuko kudeaketari dagokienez.

Amaitzeko, 2006 eta 2007 aldirako Planaren helburu estrategikoei dagokienez, zuzenki zehaztutako kudeaketa helburuak; ordea, HKEEren txostenak azpimarratu du horietako seitan ez direla ez adierazleak, ez ebaluazio metodoak finkatu.



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia  
Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas